

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailsa**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 5/2019 FORU DEKRETUA, urtarrilaren 29koa, zeinaren bitartez akatsak zuzentzen baitira Bizkaiko Foru Aldundiaren 180/2018 Foru Dekretuarena, abenduaren 18koa. Honen bidez, Berrikuntzari, Nazioartekotzeari eta Inbertsioari Laguntza Integrala emateko 2019ko 3i Programa arautzen duten oinarriak eta lehen deialdia onesten dira.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak, 2018ko abenduaren 18an hartutako erabakiaren bidez, Berrikuntzari, Nazioartekotzeari eta Inbertsioari Laguntza Integrala emateko 2019ko 3i Programa arautzen duen 180/2018 Foru Dekretua onetsi zuen.

Onuradun izateko baldintzetako bat falta dela ikusi ondoren, zuzendu egin behar da 3. artikulua, enpresa onuradunen jarduerari buruzko baldintza hori berriro sartzeko. Baldintza hori ez da berria, jasota baitzegoen aurreko deialdietako 3i Programa arautzen zuten dekretuetan, hau da, 2016, 2017 eta 2018ko dekretuetan.

Adierazitakoa dela bide, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko foru diputatuak proposatu eta Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2019ko urtarrilaren 29ko batzarraldian eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATU DA:

Artikulu bakarra

Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 18ko 180/2018 Foru Dekretuan egindako oker materiala zuzentzen da. Foru dekretu horren bidez, Berrikuntzari, Nazioartekotzeari eta Inbertsioari Laguntza Integrala emateko 2019ko 3i Programa arautzen duten oinarriak eta deialdia onesten dira.

— *Honako hau dioen lekuan:*

3. artikulua. — Entitate onuradunak

Gainera baldintza hauek betetzen dituzten enpresa txiki eta ertainak izango dira onuradunak:

- a) Enpresaren itxura juridikoa eta berezko nortasun juridikoa edukitzea.
- b) Gutxienez ekoizpen-zentro bat edo balio erantsi handiko zentro bat Bizkaiko Lurralde Historikoan edukitzea, bertan laguntzaren xedeko proiektua garatzen delarik, eta gutxienez 10 pertsonako plantilla bat edukitzea, lanaldi osoko urteko baliokideetan.
- c) 10 eta 249 pertsona arteko plantilla bat izatea lanaldi osoan, baina betiere urteko kopuru baliokideetan.

Plantilla zenbatzeko, honako hauek hartu behar dira kontuan: gutxieneko pertsona kopuruari dagokionez, erakunde eskatzaileari soilik dagozkion datuak; gehieneko pertsona kopuruari dagokionez, enpresa eskatzaileari lotutako eta elkartutako enpresetatik plantillan sartu diren langileen kopuruaren datuak, salbuespenari buruzko 651/2014 Araudi Orokorraren aipatutako I. Eranskineko 4, 5 eta 6. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

- d) Honako bi muga hauek hartu behar dira, gutxienez, ez gainditzea, eskabidearen aurreko zerga-ekitaldian sozietateen gaineko zerga dela-eta eginiko azken aurkezpenaern arabera.
 - Urteko negozio kopurua: 50.000.000 euro.
 - Balantze orokorra: 43.000.000 euro.



Enpresa eskatzailearen plantilla, negozio-kopurua eta balantzearen zenbaketa egitean kontuan hartuko da elkartu edo loturiko enpresen baliagarrien batuketa, salbuespenari buruzko 651/2014 Araudi Orokorraren aipatutako I. Eranskineko 4, 5 eta 6. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

- a), b) eta c) baldintzak (pertsonek gutxienezko kopuruari dagokionez) eskabidea aurkeztean egiaztatu beharko dira, eta erabakia eman arte eta ordainketa egin arte mantendu. Pertsonek gehieneko kopuruari buruzko c) baldintza eta d) baldintza eskabidea aurkezten denean egiaztatu behar dira.
- e) Egunean edukitzea zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta diru-laguntzak itzultzeari dagozkionak.
Baldintza hori ebatzpenaren eta ordainketaren unean bete behar da.
- f) Berdintasunerako eskubidea eta sexu-diskriminaziorik eza urratzeagatik zehapen irmorik ez izatea administrazio-bidean, edo lan-arloan edo zigor-arloan, eta ez izatea berdintasun-printzipioaren kontrakoak, enpresen helburuetan, onartze-sisteman, funtzionamenduan, ibilbidean edo jardueran sexua dela-eta edo beste edozein egoera zein inguruabar dela-eta diskriminaziorik egiten ez delako.
- g) Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 5/2005 Foru Arauaren 12. artikulua diru-laguntzei buruzko ezarritako ezein egoeratan sartuta ez egotea (aurrerantzean, Diru-laguntzei buruzko 5/2005 Foru Araua).

e), f) eta g) baldintzak automatikoki bete beharko dira, eta kasuan kasuko inguruabarrak gertatzen diren bitartean iraungo dute, Diru-laguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira krisian dauden enpresak, krisian dauden enpresa ez-finantzarioen salbamendu eta berregituraketako estatuko laguntzei buruzko Gidalerroetan (DO C 249 31-07-2014) haiei buruz jasotako definizioaren arabera.

Arlo guztietatik kanpo geratzen dira sozietate publikoak, zuzenbide publikoko erakundeak, ondasun erkidegoak eta sozietate zibilak.

Dekretu honetatik kanpoan geratzen da esplizituki legez kontrakoa edo barruko merkatuarekiko bateraezin adierazi duen Batzordearen aurretiko adierazpen baten ondoren berreskuratzeko zain dauden enpresentzako banakako laguntzen ordainketa.

Diru-laguntzaren bat jasotzen duten erakunde onuradunek Diru-laguntzei buruzko Foru Arauaren 13. eta 41. artikuluetan xedatutakoa bete beharko dute. Bereziki, jasotako fondoak zertan erabili diren frogatzen duten agiri guztiak gorde beharko dituzte, agiri elektronikoak barne, finantza-kontrolaren eginkizunak dituzten organoen egiaztapen-jardueren eta kontrol-jardueren xede izan baitaitezke, eta haiei lankidetzak eskaini beharko diete.

4/2005 Legean xedatutakoaren arabera, erakunde onuradunek lege horretan ezarritako printzipio orokorrak errespetatu beharko dituzte, beren lanaren barruko estatistikak genero ikuspegiaren arabera egokitu beharko dituzte, ez dute hizkera sexistarik erabiliko, eta emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatu beharko dute eratzen diren batzordeetan eta lan taldeetan.

— *Hau esan behar du:*

3. artikulua. — Entitate onuradunak

Gainera baldintza hauek betetzen dituzten enpresa txiki eta ertainak izango dira onuradunak:

- a) Enpresaren itxura juridikoa eta berezko nortasun juridikoa edukitzea.
- b) Gutxienez ekoizpen-zentro bat edo balio erantsi handiko zentro bat Bizkaiko Lurralde Historikoan edukitzea, bertan laguntzaren xedeko proiektua garatzen delarik, eta gutxienez 10 pertsonako plantilla bat edukitzea, lanaldi osoko urteko baliokideetan.



- c) 10 eta 249 pertsona arteko plantilla bat izatea lanaldi osoan, baina betiere urteko kopuru baliokideetan.

Plantilla zenbatzeko, honako hauek hartu behar dira kontuan: gutxieneko pertsona kopuruari dagokionez, erakunde eskatzaileari soilik dagozkion datuak; gehieneko pertsona kopuruari dagokionez, enpresa eskatzaileari lotutako eta elkartutako enpresetatik plantillan sartu diren langileen kopuruaren datuak, 651/2014 Araudi Orokorraren aipatutako I. Eranskinen 4, 5 eta 6. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

- d) Honako bi muga hauetako bat, gutxienez, ez gainditzea, eskabidearen aurreko zerga-ekitaldian sozietateen gaineko zerga dela-eta aurkeztutako azken aitorpena arabera:

- Urteko negozio kopurua: 50.000.000 euro.
- Balantze orokorra: 43.000.000 euro.

Enpresa eskatzailearen plantilla, negozio-kopurua eta balantzearen zenbaketa egitean kontuan hartuko da elkartu edo loturiko enpresen baliagarrien batuketa, salbuespenari buruzko 651/2014 Araudi Orokorraren aipatutako I. Eranskinen 4, 5 eta 6. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

a), b) eta c) baldintzak (pertsonen gutxieneko kopuruari dagokionez) eskabidea aurkeztean egiaztatu beharko dira, eta erabakia eman arte eta ordainketa egin arte mantendu. Pertsonen gehieneko kopuruari buruzko c) baldintza eta d) baldintza eskabidea aurkezten denean egiaztatu behar dira.

- e) Euren jarduera nagusia industria, eraikuntza, garraioak, industriari lotutako zerbitzuak, turismoa eta handizkako merkataritza sektoreen barruan egotea, euren jarduera nagusia I. Eranskinen ageri diren 2009ko JESNren epigrafearen barruan gelditzen delarik. Kanpoan geratzen dira arrantza, akuikultura eta lehen mailako nekazaritza-ekoizpena sektoreak.

- f) Egunean edukitzea zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta diru-laguntzak itzultzeari dagozkionak.

Baldintza hori ebazpenaren eta ordainketaren unean bete behar da.

- g) Berdintasunerako eskubidea eta sexu-diskriminaziorik eza urratzeagatik zehapen irmorik ez izatea administrazio-bidean, edo lan-arloan edo zigor-arloan, eta ez izatea berdintasun-printzipioaren kontrakoak, enpresen helburuetan, onartze-sisteman, funtzionamenduan, ibilbidean edo jardueran sexua dela-eta edo beste edozein egoera zein inguruabar dela-eta diskriminaziorik egiten ez delako.

- h) Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 5/2005 Foru Arauaren 12. artikulua diru-laguntzei buruzko ezarritako ezein egoeratan sartuta ez egotea (aurrerantzean, Diru-laguntzei buruzko 5/2005 Foru Araua).

f), g) eta h) baldintzak automatikoki bete beharko dira, eta kasuan kasuko inguruabarrak gertatzen diren bitartean iraungo dute, Diru-laguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira krisian dauden enpresak, krisian dauden enpresa ez-finantzarioen salbamendu eta berregituraketako estatuko laguntzei buruzko Gidalerroetan (DO C 249 31-07-2014) haiei buruz jasotako definizioaren arabera.

Arlo guztietatik kanpo geratzen dira sozietate publikoak, zuzenbide publikoko erakundeak, ondasun erkidegoak eta sozietate zibilak.

Dekretu honetatik kanpoan geratzen da esplizituki legez kontrakoa edo barruko merkatuarekiko bateraezin adierazi duen Batzordearen aurretiko adierazpen baten ondoren berreskuratzeko zain dauden enpresentzako banakako laguntzen ordainketa.

Diru-laguntzaren bat jasotzen duten erakunde onuradunek Diru-laguntzei buruzko Foru Arauaren 13. eta 41. artikuluetan xedatutakoa bete beharko dute. Berezik, jasotako fondoak zertan erabili diren frogatzen duten agiri guztiak gorde beharko dituzte, agiri



elektronikoak barne, finantza-kontrolaren eginkizunak dituzten organoen egiaztapen-jardueren eta kontrol-jardueren xede izan baitaitezke, eta haiei lankidetzaz eskaini beharko diete.

4/2005 Legean xedatutakoaren arabera, erakunde onuradunek lege horretan ezarritako printzipio orokorrak errespetatu beharko dituzte, beren lanaren barruko estatistikak genero ikuspegiaren arabera egokitu beharko dituzte, ez dute hizkera sexistarik erabiliko, eta emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatu beharko dute eratzten diren batzordeetan eta lan taldeetan.

AZKEN XEDAPENA

Azken Xedapen Bakarra

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean foru dekretu hau, baina abenduaren 18ko 180/2018 Foru Dekretua indarrean jarri zenetik izango ditu ondorioak.

Bilbon, 2019ko urtarrilaren 29an.

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ

Ekonomi eta Lurralde Garapena
Sustatzeko foru diputatua,
IMANOL PRADALES GIL